

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

### Abendualdiko 4. Igandea

2009 Abenduak 20 (C urtea)

Patxi Otamendi

Mikeas 5, 1-4a

Hebertarrei 10, 5-10

Lukas 1, 39-45

- *etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen*". Antzineko denboran erlijioso edo familia zereginetatik kanpo bidaiatzea desegokitzat ikusia zen. Are gehiago emakume bakarra Judeako mendialdean barneratzea.
- *"Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet"*. Espiritua berriro lanean ari da, Jainkoaren salbamena prestatzen, oraingoan bi lehengusina hauek bizi-une honetan duten jarrera bitartez. Xaloak direnen bidez ariko ote da eragiten Jainkoa?
- Pasarte labur honetan Elisabet eta Mariaren ibilbideak gurutzatzen dira. Biak desberdinak dira. Bata urtetan aurrera joana da, bere senarra bezala. Maria, ordea, gazte-gaztea. Herritarren iritzira Elisabetek denbora zeraman antzuen artean sailkatua, eta ez zitzaion seme-alabarik izateko itxurarik aurreikusten. Bibliako tradizioan badira haurdunaldia lortutako beste emakume antzuak. Eta nahiko argi uler dezakegu ezinekoa irauli daitekeenaren ezaugarri bezala aipatzen direla.
- Bi emakumeak eszena erdian daude protagonista gisa. Elisabeti ez zaio semea izango duenaren berri ematen, Zakarias bere senarrari baizik. Maria ezkongabe zegoenez, haurdunaldia albistea berari eta ez gizonari iragartzen zaio.

Emakume xume hauengandik bi Maisu sortuko dira, inguruko beste maisuak baino sakonagoak. Eta aldaketa mesianikoaren bidea emakume hauen erditik pasatzen da. Antzineko literaturan ez zitzaion emakumeari leku handirik ematen. Gehienera jota haurdunaldia, haurraren jaiotzea eta zaintzearen irudia eta izaera erromantikoa onartzen zitzairen. Horren arrastoren bat egon daiteke pasarte honetan.

- *"Punpaka hasi zitzaion haurra sabelean"*. Ez zegoen batere ongi ikusia arlo publikoan sabeleko gauzetaz mintzatzea. Gehienik ere, emakumeen arteko solasaldi-gaia izan zitekeen. Lukasek hemen Elisabeten gertakizuna zein lehengusinen arteko hizketaldia kontatzean pentsarazten digu Ebanjelioko irakurlea sendi barneko kideztat hartzen duela.

Parteka edo geuregana ote genitzake bi emakume hauen ezustea eta poza? Antzeman genezake bizi-endar berri bat abian dela gure inguru sozialean? Ezinezko dirudienak itxura egingarria hartu duela?

- *"Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!"*. Tradizio hartan ez bezala, emakume hauek sentitutako bizipen espirituala azaltzen dute. Nabaria da Jainkoaren asmotik hurbil sentitzen direla. Nahiz eta erlijio hartan hori gizonezkoei mugatua egon.

Gainera, euren poza eta zoriona era askean adierazten dute. Benetan hitz-bete ageri zaizkigu. Jainkoaren presentzia sumatu eta partekatzeak poztasunean lerratu ditu, eta gauza dira era apalean azaltzeko.

Zorionekoak belaunaldi guztietako sinestun xumeak. Ahaztu barik arras desberdina dela Jainkoaren promesak ezagutzea -edo ulertzea- eta norberaren azala balitz onartzea.